

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2695

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kide bat bere kargutik kendu eta, ondorioz, beste bat izendatzen duena.

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 12. artikuluan, lege hori garatuz Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duen martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren 4., 5. eta 8. artikuluetan, eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Funtzionamenduaren Arautegia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen proposamenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Luis María Elizalde Alcayaga jauna Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bezala Euskadiko Eskola Kontseiluko kide kargutik kentzea.

Bigarrena.– Ana Eizagirre Sagardia andrea, Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bezala Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea, agintaldia amaitzeko gelditzen den aldirako.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 21a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.